

AURKEZPENA

Eskutan daukazuen lan hau altzatar talde batek burututako lan kolektiboaren ondorio duzue zeina, CASARES Kultur-Etxearen inguruan bildurik, bere herriaren historiarekin topo egitea saiatu den. Historia ez dugu loturarik gabeko gertaeren kate bezala ulertu nahi izan, gauza oso bat bezala baizik non, geografia, ekonomia, literatura, eta historia berak ere bai iragana, baita oraina ere ultertzeko tresnak eskeintzen dizkiguten, hala nola geroaren garapena zein bidetatik igaroko diren ere.

“HAUTSA KENDUZ”, ahaztutakoa berreskuratzearen zentzuarekin, honako honi ipini diogun izenburua da, horixe bait da Altzako historiari buruzko gaietan biltzen, bilatzen eta arakatzen aritu garenok nagusiki sentitu eta sentitzen dugun sentsazioa adierazteko hoberen azaltzen duena. Donostiak orain dela 50 urte gutxi gora behera anexioa burutu ondoren Altzak jasan duen egoera administratiboak bultzatu duen urbanismoak Altzaren izakera eta izatearen desegitea ekarri digu, honen agerpen nimiñora murriztuz, Altzagaina eta zenbaiten gogorapenetara alegia. Desegite hori, hain zuzen, izan dugun eragozpen handiena izan da: ez dakigu zer gertatu den Altzako Udal Artxiboa-rekin; San Martzial Parrokiako Artxiboa ere hemendik kanpo eraman dute; eta Etxe Nagusiekin batera gogorapenak, lan tresnak eta bestelako tresneria lurperatu da ere. Beraz, geratu zaigun material eskasarekin lan egin behar izan dugu, baina beste aldetik, jende asko eta askoren laguntza izan dugu ere, eta laguntza horri esker zenbait datu eta ikerketari hautsa kendu eta argipera emateko aukera eskeini digu, askorentzat bere herriarekiko ardura berpizteko baliagarri izango delakoan dudarik ez.

Azalaren diseinua JOAQUIN GARRIDOren esku egon da, zeinek Txipres baserrian aurkitzen den zurezko San Jeronimo eskultura polikromatua eredu bezala hartu duen.

FELIX ELEJALDE-k, gure artean Juan Erenchun-ekin idatzi zuen “Alza y Astigaraga” liburua dela eta ezaguna, Altzari buruzko laburpen historiko bat idatzi du, lehendik ezagunak ziren alor historikoak datu berriekin zabalduz.

MIKEL UBILLOSe Altzako Udalariaren mugen gaia landu du. Hasiera batez alde ilun asko baziren ere, batez ere Donostiarrekiko mugak zirela eta, berak aurkezten dituen datuak direla medio, anexio garaian Udalariaren mugaketa zehatza ezagutu dezakegu.

ANTONIO CAÑAMEROk Altzako hiri eta hazkuntza demografikoari buruz azterketa burutsu eta zehatza ekarri digu orrialdeotara, bere hazkuntzaren eta garapenaren garai ez-

berdinak aztertuz, hala nola inmigrazioa eta honen eragiña. Azkenik, gaur egungo jendeza azterzen du adinari eta lanbideari begiratzen diela, batez ere.

Altzako ingurueta zehar ibilialditxo bat ematea de JOSE RAMON FERNANDEZek proposatzen diguna. Ibilaldiaren xedea “Aitzetako Txabala” trikuharria eta “Txoritokieta”ko menhirra ezagutzea da, eta bide batez, altzatar guziok ondo aski ezagutzen ditugun bi-deak zeharkatzen baditu ere ibiltariarentzat oharkabe geratzen diren zehaztasunak aipatzen ditu.

Era berean, euskal idazle altzatarra den, JOAN MARI IRIGOIENekin elkarritzeta bat eskeintzen dizuegu. Bere lanetan, beste bizi alorren artean, Altzak berarengan eduki duen eta daukan eragina beti agertzen zaigu. Elkarrizketan Literatura da gai nagusia, egungo literaturaren egoerak, bere idazlanei errepasoak, eta etorkizunerako projektoek edukia osatzen dute.

Hemen ere, 1987ko abenduan Casaresen FOTOTEKAren zabaltzea zela eta egin zen argazki erakusketaren aukeraketa txiki bat argitaratu nahi izan dugu. Fototeka txiki honek, dagoeneko 400 argazki baino gehiago duena, Altzako oroimen fotografikoa izateko asmoz eta altzatarren laguntzaz, handitzen eta gehitzen segituko dela espero du.

Azkenik, Altzari buruzko Bibliografia eta denon interesarako gure ustez izango diren balore historikoa daukaten agiriak erantsi nahi izan dizkiogu argitalpen honi. Altza gai monografikotzat hartzen duenik oso liburu gutxi dago, Altzari buruzko dato, aipamen eta abarrekoak liburu orokorrageoan bilatu behar dira. Dena den, ondoko bibliografia hau osatu dugu, ahal izan dugun zabalena.

Bukatzeko, edukiak gure inguru gertuena ezagutzeko ardura daukagun guztion gustokoa izatea espero dugu, eta era berean Altzari buruzko lan eta azterketak ugaldu daitezten espero dugu, gure herriarentzako aberasgarria izango bait da.

Altza 1.988ko Abendua

Argazki erakusketa txiki
Fototeka txiki
Bibliografia
Altza
1.988ko Abendua

Argazki erakusketa txiki
Fototeka txiki
Bibliografia
Altza
1.988ko Abendua

Argazki erakusketa txiki
Fototeka txiki
Bibliografia
Altza
1.988ko Abendua

PRESENTACION

Este trabajo que teneis entre manos es fruto de una labor colectiva llevada a cabo por un grupo de altzarras que, reunidos en torno a la Casa de Cultura CASARES, ha buscado el reencuentro con su historia. Una historia que nosotros no la hemos entendido como una sucesión de acontecimientos aislados e inconexos, sino más bien como un todo en el que tanto la Geografía, la Economía, La Literatura, etc., y la propia Historia, aportan los elementos que permitirán comprender tanto el pasado como el presente, así como las líneas generales en las que se desarrollará el futuro.

“DESEMPOLVAR”, en el sentido de recobrar lo olvidado, es el título que le hemos dado a la presente publicación, pues es precisamente esa imagen que transmite la que mejor explica la sensación que hemos sentido y aún sentimos los que hemos trabajado en recopilar, buscar e indagar en temas que tengan que ver con la historia de Altza. La situación administrativa en la que ha vivido Altza tras su anexión por Donostia pronto hará 50 años, ha propiciado el desarrollo de un urbanismo que entre otras cosas ha logrado la desintegración de la identidad y existencia de Altza reduciéndola a su mínima expresión: el Casco de Altza y el recuerdo de unos cuantos. Esa desintegración que padecemos ha supuesto el mayor problema con el que nos hemos encontrado: no sabemos que pasó con el Archivo Municipal de Alza; se han llevado fuera el Archivo Parroquial; con las Casas Solares se han enterrado al mismo tiempo las herramientas de trabajo, los recuerdos, utensilios, etc... En consecuencia hemos tenido que trabajar con el escaso material existente pero sobradamente compensado con la colaboración de muchos que han permitido que podamos iniciar a desempolvar y a dar a luz datos y estudios que despertarán, estamos seguros, el interés de otros muchos por temas de su propio pueblo.

El diseño de la portada ha corrido a cargo de JOAQUIN GARRIDO, quien ha tomado como motivo la figura de San Jerónimo, talla de madera policromada que aún permanece en el caserío Txipres.

FELIX ELEJALDE, —conocido entre nosotros por el libro “Alza y Astigarraga” que publicó en colaboración con Juan Erenchun—, ha escrito una reseña histórica en Altza, ampliando aspectos de la historia que ya había dado a conocer con anterioridad.

MIKEL UBILLOS ha abordado el tema de los límites del Término Municipal de Altza. Si bien el tema de las mugas tenía puntos oscuros, sobre todo en lo concerniente a los límites

con Donostia, con el estudio y la documentación aportada por él, podemos conocer la delimitación exacta del Término Municipal en el momento de su anexión.

ANTONIO CAÑAMERO aporta un concienzudo y exhaustivo estudio sobre el crecimiento urbano y demográfico de Altza, analizando las diferentes etapas de su crecimiento y desarrollo, así como el proceso inmigratorio y su incidencia. Por último analiza la población actual refiriéndose principalmente a la edad y a la actividad laboral.

Una excursión por los alrededores de Altza es lo que nos propone JOSE RAMON FERNANDEZ. Si bien recorre caminos conocidos por todos los altzatarras, el autor resalta aspectos que en la mayor parte de las ocasiones pasan desapercibidos para el paseante. El objetivo de esta excursión es conocer el dolmen de "Aitzetako Txabala" y el menhir de "Txoritokieta".

Os ofrecemos también una entrevista con JOAN MARI IRIGOIEN, escritor euskaldun, altzatarra, en cuya obra, entre otros aspectos vitales, siempre se puede encontrar muy presente la influencia que la evolución de Altza ha tenido sobre él. En la entrevista la Literatura ocupa el centro de atención, la situación actual de la literatura, un repaso de sus obras, y sus proyectos de futuro conforman el contenido.

Hemos querido publicar aquí también una pequeña selección de las fotos más representativas que se expusieron con motivo de la inauguración de la FOTOTECA en Casares en diciembre de 1987. Esta pequeña Fototeca que cuenta ya con más de 400 fotografías, confía en ir creciendo y aumentando con la ayuda de los altzatarras hasta conseguir ser la memoria fotográfica de Altza.

Por último hemos incluido una Bibliografía de temas referentes a Altza, y una serie de documentos de valor histórico que creemos pueden ser del interés general. Hay pocos libros que traten sobre Altza de forma monográfica, hay que buscar los datos, las menciones, etc, referentes a Altza dentro de otros más generales. Con todo, hemos elaborado, la presente bibliografía lo más completa posible, susceptible de ser ampliada.

Es nuestro deseo que el contenido sea del agrado de todos los que tenemos interés por conocer nuestro entorno inmediato, y al mismo tiempo esperamos que los trabajos sobre la historia de Altza se multipliquen y se den a conocer para el enriquecimiento colectivo de nuestro pueblo.

Altza
diciembre de 1988